

2.4. HERRITARREN SEGURTASUNA

2.4.1. EREMU PUBLIKOAREN KUDEAKETA

JARDUERAK EREMU PUBLIKOAN

Jarduera baimenduak	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Kirol-jarduerak	68	66	71	25	29	47
Eskeko-mahaiak eta informazio-mahaiak	68	81	91	24	39	47
Kultur jarduerak	27	17	27	13	2	8
Erakusketak eta publizitate-kanpainak	47	51	8	0	5	
Informazio- eta publizitate-autobusak	11	7	11	2	4	4
Merkataritza-jarduerak	25	17	69	42	42	59
Festa-ekitaldiak	201	186	179	36	24	90
Desfileak	83	88	112	32	39	82
Filmaketak	24	19	32	17	27	35
Auzoetako festak eta barrakak	12	12	27	0	1	22
Askotariko baimenak	53	86	152	122	149	248
Terrazak	110	104	139	818	661	853
Sanferminetako jarduerak	89	83	110	0	0	112
Guztira	818	817	1.028	1.131	1.022	1.599

TERRAZAK ETA ELEMENTUAK EREMU PUBLIKOAN

2022ko amaieran, 853 lizentzia emanda zeuden eremu publikoan terrazak jartzeko, eta 87 lizentzia beste era batzuetako okupazioetarako (loreontzi-euskarriak, erakustokiak, etab.).

MANIFESTAZIOAK ETA ELKARRETARATZEAK

Bilera Eskubidea arautzen duen eta apirilaren 21eko 9/1999 Lege Organikoak aldatu zuen uztailaren 15eko 9/1983 Lege Organikoa betez, Herritarren Segurtasuneko alorrak txostena eman du Gobernu Ordezkaritzak Iruñean baimendutako elkarretaratze eta manifestazio guztiei buruz, eta, gero, zirkulazioa kontrolatu du haietan, normaltasunez egin ahal izateko. Guztira, 835 ekitaldi egin ziren; 665 elkarretaratze eta 170 manifestazio.

GANADU-FERIAK

2022an, bi ganadu-feria egin dira; bata, Sanferminen harira eta, bestea, San Migel egunaren karira.

LANDABENGO AZOKA

Guztira, 125 postu esleitu zitzaizkien beste horrenbeste titularri. Haietatik 53 produktu jangarrien eremukoak dira, eta 72 salmenta-postuk jangarriak ez diren produktuak saltzen dituzte. Ostalaritza-jarduerak ez daude baimenduak. Urteko igande guztietan dago zabalik, uztail eta abuztukoetan izan ezik, 09:00etatik 14:30era. 2022an, dena den, salbuespenez azoka uztailaren 3an jartzea baimendu zen, esleipendunek eskaturik.

OBJEKTU GALDUAK

Herritarrek emandako objektu guztiak datu-base bakar batean erregistratzen dira. Gehienak, polizia-kidegoek, posta-bulegoek, eskualdeko hiri-garraioaren enpresa esleipendunak eta merkataritzako beste entitate batzuek – hipermerkatuek, kasu – entregatzen dituzte. Objektuak udal-egoitzetan gelditzen dira gordailuan, eta bertako langileak jabeak aurkitzen saiatzen dira. 2022an, guztira, 8.915 objektu erregistratu ziren; 2021ean, berriz, 6.460. Jabeek 4.589 itzuli zitzaizkien (3.397, 2021ean). Herritarrek objektu galduak buruzko 10.584 abisu egin zituzten (2021ean, 7.604).